

energia burujabetza

estrategia bateratua

energia

hernani burujabe



aurkibidea


hernani burujabe.....	4
energia burujabetza.....	6
eragileak eta gobernua.....	8
energia mahaia.....	9
lan ildoak eta proiektuak.....	10
1. Hernanin pobrezia energetikoarekin amaitzeko lanketa.....	10
2. Murrizketa eta eraginkortasuna; energia aholkularitza.....	12
3. Autokontsumo partekatua.....	13
4. Enherkom. Sortu eta egonkortzeko baliabideak.....	15
5. Energia Burujabetza: Lurralde poloa.....	16
ekintza plana 2022-2023.....	17

hernani burujabe

Hernani burujabe herri egitasmoa da. Honela, erakunde publiko, ehun ekonomiko eta herritarrek hartzen dute parte. Gobernu partekatuak, Hernaniko ongizatea eta burujabetza du xede komun.

Orokortzera joz, egitasmoak bi helburu nagusi ditu:

- Sakontze demokratikoa: Lankidetzaren errealan oinarrituriko gobernu ereduak artikulatuz, herritarren erabakimen ahalmena indartu nahi da. Hitz batean, demokrazia praktikoan sakondu
- Tokiko garapen burujabea: Egitasmoak, bizitzarako funtsezkoak diren eremuen gaineko kontrol demokratikoa berreskuratzea du helburu. Horretako, hauen gaineko plangintza eta egikaritze partekatua gauzatzea bilatuko da, herritar guztien ongizatea bermatuz eta kolpe berean demokrazia ekonomikoan urratsak emanez



energia burujabetza

Herriek, komunitateek eta herrialdeek beren energia eta lurralde politika propioak definitzeko eskubidea da energia burujabetza, nork bere ezaugarrien arabera modu ekologikoki, sozialki, ekonomikoki eta kulturalki egokiak erabiliz.

Energia edukitzeko eta ekoizteko eskubidea barne hartzen du, alegia, jende guztiak daukala energia seguru, iraunkor eta kulturalki egokia eskuratzeko eskubidea, baita energia ekoizteko baliabideak izateko eskubidea ere. Energia burujabetzak esan nahi du energia eta energia ekoizpena kontrolatzeko garaian herriek eta komunitateek lehentasuna dutela merkataritza irizpideen gainetik

eragileak eta gobernua

Erakunde publikoak

[Plangintza sektorial partekaturako, Udalak "Energia Jasangarriaren Plangintza eta Ekin-tza Plana (2017-2030)" du oinarri]

HERNANIKO UDALA

Kooperatiba herritarra

[Plangintza sektorial partekaturako, energia komunitateak proiektu estrategiko jakin ba-tzuk landu ditu]

ENHERKOM

energia mahaia

Azalpena	<ul style="list-style-type: none">-Energia mahaia sektorearen planifikazio estrategikoa eta horren baitan ematen diren ekintzen kooordinazioa egingo du-Bertan parte hartzen duten eragile/proiektuak mahaia planifikazioaren baitan aritu beharko dira-Udalak beren agenda propioa alboratu gabe eta HEBK-k bere erabakimen autonomiari uko egin gabe, elkar-lanean Hernanin energia burujabetza planifikatu eta hedatzeko kolaborazio espazio nagusia izango da aipatu mahaia-Energia burujabetzari dagokionean, hau da estrategia eta jarraipena uztartzen dituen gobernu marko nagusia
Funtzionamendua	<ul style="list-style-type: none">-Hilean behin bilduko da-Mahaia gobernurako oinarritzko dokumentua “Energia Burujabetza Hernanin. Estrategia bateratua” izango da
Gobernu eredu eta partaideak	<ul style="list-style-type: none">-Ingurumen alorreko zinegotzi delegatua: Mattin Aldaia-Enherkom kooperatiba herritarreko 2 bozeramaile-Hernaniko Udaleko ingurumen teknikaria: Amaia Lisbona-Hernaniko Udalaeko Tokiko Garapeneko teknikaria: Andoni Egia-Mahaia kooordinazio eta idazkaritzarako kanpo aholkularitza: Hiritik At koop.

burujabetzen foroa

Azalpena	<ul style="list-style-type: none">- Sektore burujabeen eta herritarren taldeko kideen topagunea.-Sektoreen arteko koordinazioa eta sakontze politikoa bilatzen duen gunea Zeharlerrotasunak lantzeko/aplikatzeko espazioa: Feminisimoa, Antiarrazismoa, Euskara, Ingurumena
Funtzionamendua	<ul style="list-style-type: none">- Beharren arabera biltzen da. Hilabetean gutxi-gora-behera.- Herritarren Taldeak dinamizatzen duen gunea.
Gobernu eredu eta partaideak	<ul style="list-style-type: none">- Ez dago udaleko ordezkariarik.-Enherkom kooperatiba herritarreko 2 bozeramaile- lantzen ari diren beste sektoreetako partaideak: Elikadura; Zaintza; Moneta; Telekomunikazioak...

Ian ildoak eta proiektuak

1. Hernanin pobrezia energetikoarekin amaitzeko lanketa

Azalpena

- Pobrezia energetikoa pobrezia orokorraren barruan koka daitekeen arren, horri aurre egiteko estrategia espeizifikoak gara daitezke
- Hernaniko Udalaren Zerbitzu Sozialen eta Enherkom-en arteko lankidetzak, egoera honetan dauden pertsonen identifikazio eta laguntza bideen hobetzea ahalbidetuko du. Ikuspegi asistentzialista gaindituz, pertsona hauek energia burujabetza eraikitze bidean protagonista izatera ere gonbidatuak izango dira (komunitatera gehitzeko erraztasunak emanez)
- Labur, honela garatuko da programa

	<ul style="list-style-type: none"> • Udalak Enherkom-era bidertauko ditu pobrezia egoeran dauden herritarrak (beren datu babesa ziurtatuz) eta herri kooperatibak aurrezte praktika eta esku-hartze txikien inguruko aholkularitza emango dio. Programak aholkularitza hori finantziatuko luke, eta beraz kontratazio publikora jo beharko da, horretarako kanpo aholkularitza bilatuz • Horrez gain, pertsona hauek Enherkom-era (eta honek eskaintzen dituen onurak) gehitzeko erraztasun sozio-ekonomikoak emango dira <p>-Helburuak betetzeko PowerPoor egitasmo Europarrearrean engaiatu da Enherkom (Goienerekin batera), egitekoak ergainkortzeko eskuratuko direlarik bertan</p>
Epe motzeko zereginak	<p>-Ikasturte honetan martxan jartzea aurre-ikusten da</p> <p>-Alde denak ados dira, orain Enherkom eta Zerbitzu Sozialen arteko bilkura egin behar da. Detai-leak itxi eta martxan hasteko</p>
Epe ertaineko garapena	<p>-Pobrezia energetikoarekin amaitzeko pauso esanguratsuak eman</p> <p>-Pobrezia egoeran zeuden pertsonak hauek, energia komunitatean partaide aktibo izateko lanketa egin, komunitategintza ikuspegitik</p>
Aurrekontua	<p>-Zerbitzu Sozialekin egiteko den bileran zehaztuko da programaren aurrekontua</p>

2. Murrizketa eta eraginkortasuna; energia aholkularitza

Azalpena	<ul style="list-style-type: none">-Udal leihatila; energia leihatila. Kasu honetan herritarrei begirako udal bulego ireki bat bezala-Udal zerbitzu bezala, Energia eraginkortasunean aholkularitza emango zaio herritarrari-Xedea, bere kontsumo ohiturak aldatzea, eraginkortasuna handitzeko eskuhartzeen gainean. informatzea eta hauek egin ahal izateko diru-laguntzetara bideratzea izango da-Programa eraginkortzeko tresnen bila, Enherkom "Why" proiektu Europarrean murgildu da (Goienerekin baera)
Epe motzeko zereginak	<ul style="list-style-type: none">-Aholkularitza eskaintza definitu behar du Enherkom ek-Ondoren udalarekin bildu eta aurkeztuko dio. Bertan definitu beharko detaileak-Kontuan edukitzekoak:<ul style="list-style-type: none">• Energiaren lehiatila martxan jarri daiteke eta IDAE bidez programa bat. (Ferminen bilduko du informazioa eta Amaiari pasako dio).• Amaiak baloratuko du ea interesgarria den udalarentzat, eraginkorra eta baliagarria horrelako zerbitzu publiko bat enpresa baten bidez ematea <p>Bestetik, aholkularitza zerbitzuaren irizpide/neurgailuetan, udalaren intereserako izan daitezkeen aldagaiak txertatu beharko dira. Finantziario iturriekin, udal diru laguntzekin edota bazterketa sozialarekin lotuak egon daitezkeen kasu-egoerak antzemateko</p>
Epe ertaineko garaipena	<ul style="list-style-type: none">-Aholkularitza zerbitzuaren garapen kuantitatiboa (jende gehiago) eta kualitatiboa (aholkatzen dena egikaritzen laguntzeko bide-laguntza handitzea progresiboki)
Aurrekontua	<ul style="list-style-type: none">-Aholkularitza hirugarren baten bidez emateko 1800 euro/hileko beharko dela aurre ikusten da

3. Autokontsumo partekatua

Azalpena	<p>-Autokontsumo partekatuko egitasmoa martxan jartzea, HEBK-ren hedapenari bide emango dion proiektu “materiala”. Bi puntutan:</p> <ul style="list-style-type: none">• Zubipe eta honen ingurua• Ereñozu: Frontoiko aukera erorita beste toki bat bilatu behar da
Epe motzeko zereginak	<p>-Exekuzio proiektua idazten dago. Ondoren Enherkom-ek instalazioa kontratatuko du</p> <ul style="list-style-type: none">• Kotntratazioaren baldintza etiko/politikoak eta komunikatiboki ondo landu beharko dira, eta EVE-rekin lerratu• Udala: Exekuzio proiektua denboretan egiten dela, jarraipena egingen dio kontrataturiko enpresari• Udalak-kontrataturiko enpresak: Zubipeko estalpea guztiz ez da udalarena exekuzio proiektuak ikusi behar du hori legalki nola justifikatu -hirigintza etab.-. Zentzu honetan gauzak atzeratuko dira zenbait elementu araubidetik kanpo baitzeuden Zubipen• Behin exekuzio proiektua egonik, Enherkom-ek instalazio/erosketak egin beharko ditu landutako printzipioak mantenduz• Enherkom: Autokontsumora gehitzeko kanpaina prest eta hedapena (kontuan edukiz aurre ikus daitezkeen oztopoak -konpainiek atzeratzea- eta horri aurre egiteko manerak (Goienerra pasatzea aurretik, bertan...), hori landu beharko du HEBK. Salbuespena: Bono soziala jasotzen dutenak ezin dira aldatu arauturiko konpainietatik <p>-Modu paraleloan Amaia Hernaniko sapaian ekoizpen gaitasunaren inguruko azterlanarekin ari da. Hemendik hurrengo instalazioetarako toki potentzialak identifikatuko dira (kontuan izanda Udalak ere behar dituela bere ekoizpen-kontsumorako instalazioak jarri)</p>

Epe ertaineko garapena	-Hernani guztia auto-kontsumo partekatu baten aterkipean egotea eta aukera ematea bertan partaide izateko, ondo konbinatuz tipologia ezberdinak (etxebizitza eta dendak kasu)
Aurrekontua	-300.000 € (2022 ean)

4. Enherkom. Sortu eta egonkortzeko baliabideak

Azalpena	-Kontuan izanda Enherkom bezalako proiektuak duen konplexutasuna (komunitategintza, energia, kooperatiba, lankidetzak publikoak, etab.) ezinbestekoa da martxan hartu arte bertako pertsona batzuek ordu liberatuak izatea proiektuaren egonkortzeari eskaintzeko
Epe motzeko zereginak	-Enherkom-ek proposamena garatu eta aurkeztu kronograma eta aurrekontua -Enherkom martxan jarri -500 bazkide lortu ikasturte honetan -Kooperatibaren asanblada orokorraz eratze fasea itxi
Epe ertaineko garapena	-Enherkom herritarren energia erreferentzi eta kooperatiba izatea
Aurrekontua	-Enherkom ek landuko du proposamena eta aurrekontua

5. Energia Burujabetza: Lurralde poloa

Azalpena	<ul style="list-style-type: none">-Energia Burujabetza gauzatzeko gaitasun ugari batu eta enpresa berriak ere sortzeko aukera egongo da-Aukera dago, kanpoko enpresetan oinarritu gabe, bertako tokiko garapenari ekarpena egingo dion sektore ekonomiko izatea energiarena-Horretarako lurraldeko inteligentzia kontzentratuko duen eta programa eta proiektu berriak erdituko dituen espazio fisiko baten beharra ikusi da. Aipatu gaitasun hori katalizatuko duena eta lurraldeko beste agenteen aurrean erreferentzia lanak egingo dituen
Epe motzeko zereginak	<ul style="list-style-type: none">-Gaur gaurkoz, Iturola espazioaren etorkizun motzari lotua dago ideia hau. Hemen izan zezakeen espazioa aipatu guneak, baina eraikinaren barne-birmoldaketak ahalbidetu beharko du aukera hau-Azken puntu hau (espazioaren definizioa) askatzeko arduradun geratu da zinegotzia
Epe ertaineko garapena	<ul style="list-style-type: none">-Proiektu ambizioso batez ari gara, Enherkorm herri kooperatibaz gain, energia burujabetza eraikitzeko beharrezko diren gaitasun, proiektu eta programen fabrika bat
Aurrekontua	<ul style="list-style-type: none">-Zehazteke

